

## Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

63. zenbakia

Data 2006-03-31

7574 orria

---

**3 GIPIIZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**  
GFA - DIPUTATU NAGUSIA  
**Martxoaren 28ko 22/2006 FD, Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrari buruzko xedapen batzuk garatzeko abenduaren 21eko 117/1999 FD aldatzen duena.**

---

61. artikulua. Informazioa eman behar dutenak.

1. Informazioa eman behar duten pertsonak edo entitateak 59. artikuluan aipatzen dira; hona zehatzago:

a) Finantza entitateetako kontuetako interesak edo itundutako beste ordainsariren bat ordainduz gero, finantza entitate ordaintzailea.

b) Finantza entitateen kupoiak ordaindu, amortizatu, itzuli, trukatu edo bihurtuz gero, baloreen jaulkitzailea.

Hala ere, finantza entitate bati agintzen bazaio aurreko eragiketetako bat egiteko, berak eman behar du informazioa.

c) Aktibo finantzarioak eskualdatuta etekinak lortuz gero, eskualdatzailearen kontura aritu den finantza entitatea.

d) Herri Zorraren baloreei dagokienez, eragiketan aritu den Herri Zorraren Merkatuko entitate kudeatzailea.

e) Inbertsio kolektiboko erakundeek emaitzak banatuz gero, sozietate kudeatzailea edo inbertsio sozietatea. Inbertsio kolektiboko erakundearen egoitza atzerrian badago, entitate merkaturatzailea edo merkaturatzeko ahalmendutako bitartekaria.

f) Inbertsio kolektiboko erakundearen akzioak edo partaideak ez eskualdatu edo itzuli gero, sozietate kudeatzailea edo inbertsio sozietatea, edo, bestela, eskualdaketa bitartekari lanak egin dituen finantza entitatea. Inbertsio kolektiboko erakundearen egoitza atzerrian dagoenean, entitate merkaturatzailea edo merkaturatzeko ahalmendutako bitartekaria.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 11. artikuluan eta IV. titularen VI. kapituluko 2. sekzioan araututako errenta esleipenaren araubidea aplikatu behar zaion entitate batek foru dekretu honetako 60. artikuluan aipatutako errentak jasotzen baditu eta haien zenbatekoa Batasuneko beste estatu batean egoiliaritutako pertsona fisiko bati esleitu badakizkioke, eragiketari buruzko informazioa eman behar du. Honelako entitateek informazioa Batasuneko beste estatu bateko egoiliar diren kideei errentak ordain tzean ematea hauta dezakete. Hori hautatuz gero, Zerga

Administrazioari jakinarazi behar diote, eta gero hark, entitateak eskatuta, hautapenaren ziurtagiria emango du.

3. Aurreko apartatueta xedatutakoa gorabehera, haietan aipatutako pertsonak edo entitateek ez dute izango informazioa eman beharrik errenta jasotzen duen pertsona fisikoak ondokoak frogatzen baditu:

a) Errentak ordain tzen dituela edo errenta-ordainketetan bitartekari ari tzen dela, 59. artikuluan adierazitakoaren ildotik.

b) Pertsona juridiko baten, enpresen zerga ordainketari buruzko arau orokorrei jarraituz zergapetutako entitate baten edo 85/611/EEE Zuzentarauak araututako inbertsio kolektiboko erakundeetako baten kontura aritu dela.

c) Nortasun juridikorik gabeko entitate baten, enpresen zerga ordainketari buruzko arau orokorrei jarraituz zergapetuta ez dagoen entitate baten edo 85/611/EEE Zuzentarauak araututako inbertsio kolektiboko erakundeetako ez den baten kontura, Espainiako legeriaren arabera errenta esleipenaren araubidekoa izan edo ez.

Kasu honetan, pertsona fisikoak entitatearen izena eta helbidea jakinarazi behar dizkio errenta eman dion per tso nari edo entitateari, eta horrek gero Zerga Administrazioari.

d) Beste pertsona fisiko baten kontura aritu dela. Kasu honetan, errenta eman duen pertsonak edo entitateak per tsona fisikoa nor den jakinarazi behar du, 63.a) artikuluekin bat etorritik.